

Identifikatu dugun energia sorkuntzarako lehen aukera, partekatutako eguzki instalazio fotovoltaiako batean oinarritzen da, zeina autokontsumora bideratuko litzatekeen (sortzen den unean bertan baliatuz, merkatuan saldu beharrean).

Gaur egun 244/2019 EDak zehaztean duenaren arabera, estalki gaineko instalazio hauetan, eguzki energiaren bidez energia sortzen den gunetik, 2km-ko erradio batean sartzen diren kontsumitzaileak batu litezke instalazio horretara (kontagailutik kontagailurako distantzia, oinplano zuzenean).

Gure kasuan, identifikatu dugun lehen kokapena, AGERIALDE (Udarregi HH-LH) eraikineko estalkia da, Alperro Buru kalean kokatzen dena. Usurbilgu Udalarekin lagapen bat adostu da. Beraz, Sortalderen lehen instalazioa bertan kokatuko da, eta bertan parte hartzeko aukera luketen kontsumitzaileak biltzen dituen azalera honako litzateke:



Instalazioaren inguruko xehetasunak:

Instalazioak 100kW nominaleko gaitasuna izango du, 194 plaka inguruko eguzki eremua lukeelarik:



Instalazio honen bitartez, 100 etxebizitza inguru hornitzeko aukera aurreikusten da, bakoitzean, %30 inguruko autokontsumoa eskuratu litekeelarik (kasuan kasu).


Instalazio hauek, ez dute parte hartzaile mugarik, beraz, zenbat eta partaide gehiago izan, kostuak partekatu eta emaitzak hobetzeko aukera legoke.

Bestalde, enpresa, elkarte edo bestelako entitateek ere parte hartu lezakete arazorik gabe. Hauen kasuan, behar handiagoak izango dituzte autokontsumoarekiko, eta beraz, bakoitzari esleitutako plaka kopurua handiago izatea aurreikusten da.

AUTOKONTSUMO INSTALAZIOAREN DIMENTSIONAMENDUA	
INSTALAZIOAREN DATU TEKNIKOAK	
Eguzki plaka kopuru aurreikusia	194 unitate
Instalatutako potentzia aurreikusia	102,82kWp / 100kWn
Aurreikusitako sorkuntza (kWh/urte)	111.178,60 kWh/urte
Saihestea aurreikusten diren emisioak ¹	13,5 TCO ₂

¹ (CNMCren arabera 2023-ko estatu mailako emisio faktorea = 0,121 gCO₂/kWh)

HEGO-MENDEBALDEA		
HILABETEA	Esor [kWh/egun]	Esor [kWh/hilab]
Urtarrila	149,95	4.648,60
Otsaila	226,43	6.339,90
Martxoa	303,61	9.412,00
Apirila	372,93	11.188,00
Maiatza	411,69	12.762,30
Ekaina	421,19	12.635,60
Uztaila	428,84	13.293,90
Abuztua	408,10	12.651,20
Iraila	361,27	10.838,10
Urria	258,08	8.000,40
Azaroa	165,44	4.963,20
Abendua	143,40	4.445,40
		111.178,60



ENERGIAREN BANAKETA

Instalazioari, kontagailu berri bat ezarriko zaio, une oro sortzen den energia ekoizpena irakurtzeko. Beraz, parte-hartzaileei, instalazioaren % bat esleituko zaio, eta zuzenean, bere argi-indar fakturan autokontsumoaren aurrezpena jasoko du.

Horretarako, dagokionean, parte-hartzaile guztien arteko BANAKETA AKORDIO bat sinatuko da.

Hurrengo urratsak:

Une honetan, instalazio honetan parte hartzeko prest dauden bazkideen bila gabiltza. Horretarako, partaide bakoitzaren kontsumo datu errealak eskuratu nahi ditugu, behin beharrezko kalkuluak eginda instalazioaren inguruko xehetasun zehatzak eskaini ahal izateko:

- Bakoitzari esleitutako instalazioa zatia (plaka kopurua, nolabait)
- Inbertsioaren inguruko datuak
- Autokontsumitutako energia eta aurrezpen aurreikusiak
- Kooperatibaren urteko gastuei aurre egiteko aurreikusitako kuotak

Zure datuak emateko prest bazaude, bete galdetegi hau mesedez:

→ [Interesdunen datu bilketa](#)

Ohiko galderak:

- Instalazio honetara batu nahi luketen parte hartzaileek, ez lukete inolako egokitzapenik egin behar beraien instalazio elektrikoetan. Egokitzapen bakarra, eguzki panelak kokatuko diren estalkiari lotutako horniduran egin beharko baita.
- Instalazioaren jabe edo titularra, Sortalde (Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea edo EBK) litzateke. Eta kooperatiba honen bazkide diren norbanako zein enpresa edo entitateek, instalazioaren parte hartu edo ez erabakiko dute. Parte hartze horren bitartez, euren hornidura elektrikoaren fakturan aurrezpen bat jasoko lukete. Horretarako, kooperatibak erabakiko du bazkide bakoitzari dagokion inbertsioa zatiaren zenbatekoa eta kooperatibaren funtzionamenduari lotutako kuoten zenbatekoa.